

Ikastolen Etxean, 2022ko irailaren 21a

Idatzi honen bitartez, Ikastolen Elkartea osatzen dugun kide guztion lehen balorazioa egitea gustatuko litzaiguke. Lehenik eta behin, Hezkuntza Sailari eskerrak eman nahi dizkiogu 40 urteren ondoren Hezkuntza Sistema osoa arautzen duen lege bat abian jartzeagatik eta Euskal hezkuntza-sisteman zegoen hutsune handi bat betetzen saiatzeagatik.

Ikastolok positibotzat jotzen ditugu bertan ageri diren hainbat oinarri: **Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren sorrera, doakotasun printzipioa eta helburua** jasotzea eta nola ez, ikasleek **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzerakoan eskuratu beharreko hizkuntza-gaitasunak** jasota egotea.

Baina, aldi berean, zalantzak eta kezak ere sortzen dizkigu, eta ezin ukatu hainbat kontzepturekiko dugun desadostasuna. Dokumentu berri honen aurrean, Euskal Hezkuntza osatzen dugun eragileok konpromiso bat dugula uste dugu, eta gure arduetatik **pasatzen utzi ezin dugun aukeraren aurrean aurkitzen gara**. Epe luzerako legea izanik, oraindik denbora eta aukera dugu elkarlanean urrats berri bat egin eta, legea norabide egokiagoan jarriz, hezkuntza sistema propioa lortzeko.

Bestalde, **autokritika falta** ere sumatzen dugu azken urteetako balorazioa egiterako orduan. **1993ko Legea oinarritzat** hartuta, lortu diren helburuez hitz egin bai, baina lortu ez diren helburuen gaineko **irakurketa kritikorik ez da egiten** eta. Ez dira hauek ez lortzearen arrazoiak hausnartzen; eta egon badaude. Ikastolon ustetan, garrantzitsua da hausnarketa hori egin eta ondorioez baliatzea, lege berriaren aurrean proposamen berrituak egin eta zailtasun berdinekin topo ez egiteko.

Ikastolen mugimendua urte hauetan guztietan saiatu eta **jakin izan du Publikotasun herritar berri baten inguruko eztabaida indarrean mantentzen**. Momentu honetan, hezkuntza sistema propio baterako trantsizio prozesu bat ahalbidetzeko aukera dugu, eta horretarako guztiok **irudimenez eta ausardiaz jokatzeko** beharrezkoa dela uste dugu.

Ondoren, guretzat ezinbestekoak diren hainbat puntu aipatuko ditugu:

- **Zirriborroak zehaztasun falta handia du:** Hezkuntza akordioa gauzatu zen unean, gure babes kritikoa eman bagenion ere, gauza asko legearen artikulatuarekin argituko zirela esan genuen. Ordea, ez da horrela izan. Legearen zirriborro honetan, artikuluek ez dituzte zalantzak argitu, helburuetan gelditzen dira eta. Gure harridurarako, **gai asko ondoren erreglamendu bidez garatzeko geratuko dira**. Aurreikuspen hori 45 aldiz agertzen da. Ohikoa eta ulergarria da lege bat printzipioetan zentratzea, orokorra izatea, eta gai batzuk geroko erreglamendu bidezko garapen baterako uztea. Baina kasu honetan, gai garrantzitsu gehiegi deskribapen labur baten ondoren erreglamenduaren garapenaren zain geratzen dira. Eta hori horrela izanik, kasu batzuetan, **zaila egiten zaigu zirriborroan jasotakoa baloratzea erreglamendu garapen hori ezagutu gabe**. Kasurik paradigmaticoena euskal hezkuntza zerbitzu publikoan sartzeko ikastetxeek bete

behar dituzten baldintzak dira, Hezkuntza Akordioan baino zehaztapen gutxiagorekin definituta daude eta.

▪ **Euskararen alorrean:**

Legearen lehen zirriborroa aztertzerakoan, **norabide onean** doazen neurriak jaso direla egiaztatzen dugu. Besteak beste:

- o Berariaz ikasleek **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzerakoan eskuratu beharreko hizkuntza gaitasunak zehaztea**, B2 maila.
- o Ikastetxeen **hizkuntza proiektuetan** ere azpimarra jartzen du zirriborroak; ondorioz, hizkuntzen trataera ikastetxearen barruan zehaztuz, eta euskara proiektuaren ardatz nagusia izango dela nabarmenduz.
- o **Ebaluazio irizpide nagusiak** ere ezartzen ditu, **etengabeko ebaluazio** baten bidez, ikasleen eta irakasleen maila, zein Ikastetxeko hizkuntza proiektua ebaluatzeko eta **hobekuntza prozesuak gauzatzeko**.
- o Amaitzeko, **ikastetxeetako hizkuntza jarduna** ere arautzen du zirriborroak, ikastetxeak euskararen arnagune funtzional bihurtu eta ikasleak euskaraz normaltasunez bizi daitezen.

Zirriborroak **ez ditu, ordea, beste hainbat puntu zehazten:**

- o **Ez da berariaz zehazten zein izango den hizkuntza eredu berria**. Gure ustez, beharrezkoa da hizkuntza-proiektuak zein hizkuntza-ereduren gainean eraikiko diren zehaztea, hau da, ikasleek eta irakasleek hizkuntza maila horiek benetan lortuko direla bermatzeko erabiliko duten hizkuntza eredua.
- o **Hizkuntza proiektuen oinarria ere ez dago zehaztuta, ez da bidea jasotzen**. Ikastolok argi dugu zein izan beharko litzatekeen eredu hori, **ikasteredu orokortu inklusiboa**, eta horregatik legearen zirriborroak jaso beharko lukeela pentsatzen dugu, ikasleak hizkuntza ofizialen arteko aukeraketaren arabera banatu barik. Zirriborroak ikastetxeetan euskararen erabilera arautzen badu ere, termino juridiko zehatzago baten bidez jaso beharko litzatekeela uste dugu, eta euskara ikastetxeko komunikazio-hizkuntza gisa aitortu.
- o Ikastetxe bakoitzeko irakasle-taldeen euskara mailaren ebaluazioaz gain, uste dugu **beharrezkoa izango litzatekeela kanpoko ebaluazio** bat egitea.
- o Zirriborroak une oro esparru eleaniztuna jasotzen du, hiru hizkuntzek ikaskuntzak bideratuko dituztela, eta hori horrela izanda, gure ustez, **euskararen protagonismoa lausoegia** geratzen da. Eleaniztasuna bai, baina guk hezkuntza euskalduna nahi dugu, eta, horretarako, Euskarak beharrezko protagonismoa eta lehentasuna izan behar ditu.
- o **Euskarak eta euskal kulturak jasotzen duten trataera ere eskasa** dela uste dugu. Hezkuntza-Sistemaren balioak lantzerakoan (izatea, jakitea eta elkarrekin bizitzea)

hirugarren balioan sartzen du euskara, **euskal kulturari inolako aipamena egin gabe** eta euskararen ezagutza eta erabilpena helburua jarritz. Ikastoletan garbi dugu euskarari eman behar zaion garrantzia (izatea atalean sartuz), eta ez hori bakarrik, euskarari ezin zaio hizkuntza soil baten tratamendua bakarrik eman, herri baten kultura eta izaeraren oinarria da, eta horrela tratatu behar dugula argi dugu.

- o Zentzu berdinean ikusten dugu curriculumaren definizioa, **dirudinez ez dago “euskal curriculumik”**, eta egiten den definizioa (Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak zehazten dituzten elementuen erregulazioa da curriculum) aipatzen dugunaren adibide bat besterik ez da. Gure ustez, **Euskal curriculumak euskal dimentsioa eta dimentsio unibertsala barne biltzen dituen ikuspegia jaso beharko luke**, besteak beste, euskal kulturaren transmisioa belaunaldiz belaunaldi bideratuko dela ziurtatzeko, beti ere euskal kulturaren ezagutza bultzatuz.
- o **Deigarria** egiten zaigu beste aldetik, **Euskararen Irakaskuntzarako Institutuari izena aldatu izana**; orain, legearen zirriborroan, Euskara eta Hizkuntzen Irakaskuntzarako Institutua deitzen zaio, eta ez dakigu zergatik. **Izenarekin batera izaera ere aldatzeko arriskua ikusten dugu**. Euskararen Irakaskuntzarako Institutua zen akordioan azaltzen zena, eta, gure ustez, hala mantendu beharko litzateke. Institutu honen sorrera aukera ezin hobea izan daiteke eta hezkuntza eragile, euskalgintza eta kultur eragileok, administrazioarekin batera, elkarlanean, euskara eta euskal kultura erdigunera ekartzeko. **Deigarria** egiten zaigu ere, **ematen zaizkion zereginen artean** “Euskal curriculum lantzea eta eskola-materialaren ekoizpena antolatzea” azaltzea, gure ustez, Institutuaren eginkizunak zeintzuk izan behar diren zehazteko hausnarketa sakona egiteaz gain eztabaidara zabaldu behar den zerbait delako.
- **Hezkuntza Sistemaren definizio integrala**. **Definizio hau lehen aldiz gauzatzen** da. Ezberdintasunak antzeman ditugu Akordioaren eta Legearen zirriborroaren artean. Akordioaren aurrean Ikastolok positibotzat baloratu genuen bertan jasotzen zen Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren sorrera, bereziki, ikastetxe guztiei administrazio-titulartasunekoak izan ala ez, bertan egoteko aukera luzatzen zizulako. Baina legearen lehenengo zirriborro honetan, **betiko dikotomia berreskuratzen dela iruditu zaigu, publiko-pribatuaren arteko ezberdintasunak eginez**. Argi azaltzen da bertan publikoaren definizioa, eta beste alternatibarik eskaintzen ez duela iruditzen zaigu. Publikoa izango da: “titularra administrazio publiko dutenak”. **Ikastolon ustez aukera paregabea dago ezberdintasun hori puskatu, ausartak izan, eta mundu eta Europa mailan dauden beste eredu batzuekin esperimentatzen hasteko**.
- Aurrerapausoa ere iruditzen zaigu **doakotasun printzipio eta helburua**, ikasle eta familia guztiei hezkuntza eskubidea bermatzearen aldera. Baina **ez da** inon **aipatzen nola burutuko** den hori, **zeintzuk izango diren** hori ziurtatzeko administrazioak jarriko dituen **baliabideak**. Aipatzen den puntu bakarra “auditoriak” dira, eta ikastolok puntu honetan ados egon gaitzkeen arren, denok dakigu, eta administrazioak ere bai, benetan proposatzen den zerbitzu publiko hori doan eskaintzeko, askoz baliabide gehiago jarri behar direla. Helburu horrekin, LOMLOE berak ere Espainia mailan epe eta lantalde bat eratzeko beharra aipatzen ditu. Gure ustez, Hezkuntza Legean aipamen bera egin beharko litzateke, eta honekin batera, ezin dela doakotasun hori bermatu baliabide

guzti horiek bideratu artean. Bitartean badaude (edo egon daitezke) behin-behineko neurriak.

- **Plangintza estrategikoaz** ere hitz egiten du Lege zirriborroak: Legearen zirriborroaren testuan zehaztasun handiagorik ez izatearen ondorioz, zaila da zertaz ari den jakitea plangintza estrategikoa arautzen duenean; izan ere, zirriborroan hezkuntzaren programazio orokorra izeneko beste figura bat ere agertzen da, oso antzekoa. Are gehiago, bien arteko lotura zein den jakitea ezinezkoa da, eta legearen zirriborroaren testuan pisu espezifiko handia duten bi elementuri buruz ari gara.
- **Segregazioaren** inguruan **egiten den hasierako proposamenarekin eta helburuarekin bat gatoz**, planifikazioa eta udalen inplikazioa ikusten baitugu tresna eraginkorrena jarritako helburua bideratu ahal izateko. Hala ere, kasu honetan ere **zehaztapan falta oso handia** da, eta tresna horien erabilpena oso ezberdina izan daitekeen neurrian (ondorio oso ezberdinekin), zehaztapan hori gabe kezka besterik ezin dugu azaldu.
- **Udalen parte hartzea**: Hezkuntza Akordioaren testuak udalek euskal hezkuntza sisteman izango zuten parte hartzea garrantzitsua izango zela pentsarazten zigun, baina **legearen zirriborroan Udalen zeregina lausotu egin da**. Esate baterako, Udal Hezkuntza Kontseiluak aukerazkoak dira. Batetik, Udalerrri batek ez badu kontseilu hori sortu nahi, ez dago derrigortua; eta bestetik, legearen zirriborroak esleitzen dizkion funtzioak oso orokorrak dira. Eta beste hainbat kasutan erregelamendu bidez ezarriko dira udalen eskuduntzak. Publikotasun eredu berri baterantz egin nahi badugu, udalen eta herrietako gainontzeko eragileen parte-hartze aktiboa ezinbestekoa izango da Ikastolon iritziz.
- **Autonomiarekin lotuta** (ikastetxe guztiena) **“kontratu-programaren aipamena** ere interesgarria iruditzen zaigu. **Benetan berrikuntza eta ikastetxeei lotutako irakaskuntza aurreratua ezarri nahi bada, oso tresna garrantzitsua izan daiteke** eta. Ikastetxeen autonomia behin eta berriro azaltzen da, baita ere estamentu guztien parte hartzea. Baina, era berean, “Administrazioa titular den ikastetxeetan” giza baliabide zein ekonomikoenak ez badira gauzatzen, ezin izango da autonomia hori gauzatu.
- **Gobernantza eredu**a: aurreko legeditik ez da ezer aldatu Ikastetxe itunduen “gobernantza ereduaren” atalean, ezta Eskola Kontseiluaren osaketan ere. Ikastolon ustez ez da aintzat hartzen ikastolak eta kooperatibek dugun kudeaketa eredu. Alegia, ikastetxearen titularra familiek eta, kasu askotan, langileek osatzen badute, ez du zentzu handirik Eskola Kontseilua garatzea, bere funtzioak Artezkaritza Kontseiluak betetzen baititu.
- **Euskal Herria bere osotasunean**. Berriro, **gure ikuspegitik legeak duen hutsune handi bat** aipatu behar dugu: Euskal Herriaren aipamena. **Euskal Herria euskararen herria bada ere, bada hori baino askoz gehiago ere; izaera, kultura, hizkuntza, balio eta nortasunarekin lotzen da**. Horrek guztiak, nahiz eta agerikoa izan EAerako lantzen den lege baten inguruan ari garela, **legean** bere oihartzuna izan behar duela argi daukagu, eta **lurraldetasunaren ikuspegitik bezala, ikuspegi soziolinguistiko, kultural eta ekonomikotik ere landu behar dela deritzogu**. Eta horretarako bideak badaudela uste dugu. Alde batetik, Euskal Herrian **dauden ikastetxe guztien arteko harremanak eta**

proiektuak sustatuz edo ikastetxeen arteko sareak hedatzea bultzatuz; eta, bestetik, **Europa mailan dagoen legedia erabiliz, elkarlana sustatzeko erakundeak sortuz** eta baliatuz, egungo errealitatetik abiatuta hezkuntza sistema propio bat Euskal Herri osoan eraikitzeko tresna izan daitekeena eta denontzat estrategikoak diren proiektuak bideratzeko balio dezakeena.

- **Laikotasuna:** Funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeek **laikotasunean oinarritutako hezkuntza-eredua garatu beharko dutela** dio legeak. Baina oinarri honetan ere adierazten du, “ **itunpeko ikastetxe pribatuen berezko izaera errespetatu beharko dela**”. Gure ustez lege honek sinismen askatasuna bermatu beharko luke, erlijioak, fede gisa, curriculumetik kanpora utziaz.

Hau da legearen zirriborroaren inguruko lehenengo balorazioa. Hilabeteko epea daukagu ekarpenak egin eta gure komunitatean eztabaida zabaldu eta ekarpenak lantzeko.

Ikastolen Etxean, 2022ko irailaren 21a

A través de este escrito nos gustaría hacer una primera valoración de todos los miembros que formamos Ikastolen Elkartea. En primer lugar, queremos agradecer al Departamento de Educación la puesta en marcha después de 40 años de una ley que regula todo el Sistema Educativo e intentar cubrir una gran laguna que existía en el sistema educativo vasco.

Las ikastolas valoramos positivamente **la creación del Servicio Público Vasco de Educación, el principio y el objetivo de gratuidad**, así como **las competencias lingüísticas a adquirir por el alumnado al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria**.

Pero, al mismo tiempo, también nos genera dudas y preocupaciones, y no podemos negar nuestra discrepancia con diversos conceptos. Ante este nuevo documento, creemos que los agentes que conformamos la Educación Vasca tenemos un compromiso y nos encontramos ante una oportunidad que, desde nuestras responsabilidades, no podemos dejar pasar. Siendo una ley a largo plazo, todavía tenemos tiempo y oportunidad de colaborar para dar un nuevo paso y, poniendo la ley en una dirección más adecuada, conseguir un sistema educativo propio.

Por otra parte, también echamos en falta autocrítica a la hora de hacer una valoración de los últimos años. Sobre la base de la Ley de 1993, se hace hincapié en los objetivos logrados, pero no se hace una lectura crítica de los objetivos no alcanzados. No se reflexionan las razones de no haberlas logrado; y las hay. En opinión de las ikastolas, es importante hacer esta reflexión y sacar provecho de las conclusiones para hacer propuestas renovadas ante la nueva ley para no toparnos con las mismas dificultades.

El movimiento de las ikastolas ha intentado y sabido durante todos estos años mantener vigente el debate sobre una nueva definición de lo público. En este momento tenemos la oportunidad de posibilitar un proceso de transición hacia un sistema educativo propio, y para ello creemos que es necesario que todos actuemos con imaginación y valentía.

A continuación, comentamos algunos puntos imprescindibles para nosotros:

- El borrador adolece de una gran indefinición: Aunque en el momento en que se materializó el Pacto Educativo le dimos nuestro apoyo crítico, dijimos que muchas cosas se aclararían con el articulado de la ley. Sin embargo, no ha sido así. En este borrador de ley los artículos no aclaran las dudas, ya que se quedan en los objetivos. Para nuestra sorpresa, muchos temas quedarán para su posterior desarrollo reglamentario. Esta previsión aparece 45 veces. Es frecuente y comprensible que una ley se centre en los principios, que sea general, y que algunas cuestiones se dejen para un desarrollo reglamentario ulterior. Pero en este caso, demasiadas cuestiones importantes quedan pendientes del desarrollo del reglamento tras una breve descripción. Y siendo esto así, en algunos casos, nos resulta difícil valorar lo recogido en el borrador sin conocer ese desarrollo normativo. El caso más paradigmático son los requisitos que deben cumplir los centros para acceder al Servicio Público de Educación Vasco, definidos con menos concreciones que en el Pacto Educativo.

- **En el ámbito del euskera:**

Al analizar el primer borrador de la ley comprobamos que se han recogido medidas que van en la buena dirección. Entre otros:

- o Determinación específica de las competencias lingüísticas a adquirir por el alumnado al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria, nivel B2.
- o El borrador también pone énfasis en los proyectos lingüísticos de los centros, concretando el tratamiento de las lenguas dentro del centro y destacando que el euskera será el eje central del proyecto.
- o Establece también los principales criterios de evaluación, a través de una evaluación continua, para evaluar el nivel de alumnado y profesorado, así como el proyecto lingüístico de centro y para llevar a cabo procesos de mejora.
- o Para terminar, el borrador regula también la práctica lingüística en los centros educativos, para que los centros educativos se conviertan en un nicho vital funcional del euskera y los alumnos puedan vivir con normalidad en euskera.

El borrador no concreta, sin embargo, otros puntos:

- o No se especifica expresamente cuál será el nuevo modelo lingüístico. Entendemos que es necesario definir el modelo lingüístico sobre el que se van a construir los proyectos lingüísticos, es decir, el modelo lingüístico sobre el que alumnos y profesores van a garantizar el logro efectivo de estos niveles lingüísticos.
- o La base de los proyectos lingüísticos tampoco está definida, no se recoge la vía. Las ikastolas tenemos claro cuál debería ser ese modelo, un modelo de aprendizaje generalizado inclusivo, y por eso pensamos que debería recogerse en el borrador de ley, sin dividir al alumnado en función de la elección entre las lenguas oficiales. Aunque el borrador regula el uso del euskera en los centros, creemos que debería recogerse mediante un término jurídico más concreto y reconocer el euskera como lengua vehicular del centro.
- o Además de la evaluación del nivel de euskera de los equipos docentes de cada centro, consideramos que sería necesario realizar una evaluación externa.
- o El borrador recoge en todo momento un marco plurilingüe en el que las tres lenguas orientarán sus aprendizajes, y con ello, entendemos que el protagonismo del euskera queda demasiado difuso. El plurilingüismo sí, pero nosotros queremos una educación euskaldún, y para ello el euskera debe tener el protagonismo y la prioridad necesarias.
- o También consideramos escaso el tratamiento que reciben el euskera y la cultura vasca. Integra el euskera en el tercer valor a la hora de trabajar los valores del sistema educativo (ser, saber y convivir), sin hacer referencia alguna a la cultura vasca y poniendo como objetivo el conocimiento y uso del euskera. En las ikastolas tenemos clara la importancia que hay que dar al euskera (incluyéndolo en el apartado de ser), y no sólo eso, al euskera no se le puede dar sólo el tratamiento de una simple lengua, es la base de la cultura y del carácter de un país, y tenemos claro que así debemos tratarlo.

- o En el mismo sentido, vemos la definición del currículo, parece que no existe el currículo vasco, y la definición que se hace (el currículo es la regulación de los elementos que determinan los procesos de enseñanza y aprendizaje) no es más que un ejemplo de lo que mencionamos. Creemos que el currículum vasco debería incorporar una visión que incluya la dimensión vasca y la universal para, entre otras cosas, asegurar que la transmisión de la cultura vasca se canalizará de generación en generación, siempre impulsando el conocimiento de la cultura vasca.
 - o Nos llama la atención, por otro lado, el cambio de nombre al Instituto para la Enseñanza del Euskera; ahora, en el borrador de la ley, se le llama Instituto para la Enseñanza del Euskera y de las Lenguas y no sabemos por qué. Vemos el peligro de que, además del nombre, cambie también de carácter. La creación del Instituto para la Enseñanza del Euskera era el que figuraba en el Pacto Educativo y entendemos que debería mantenerse como tal. La creación de este Instituto puede ser una oportunidad inmejorable para que los agentes educativos, del euskara y culturales, en colaboración con la administración, acerquemos el euskera y la cultura vasca al punto central. También nos llama la atención que entre las tareas que se le asignan figure “la elaboración del currículo vasco y la organización de la producción de material escolar”, ya que entendemos que las funciones del Instituto deben ser objeto de una profunda reflexión y se ha de abrir un debate para abordarlo.
- **Definición integral del Sistema Educativo.** Esta definición se realiza por primera vez. Hemos detectado diferencias entre el Pacto Educativo y el borrador de Ley. Ante el Pacto, las Ikastolas valoramos positivamente la creación del Servicio Público Vasco de Educación que se recogía en el mismo, en especial porque nos extendía la posibilidad de participación a todos los centros, sean de titularidad administrativa o no. Pero en este primer borrador de ley nos parece que se recupera la dicotomía de siempre, haciendo diferencias entre público-privado. En él se explica con claridad la definición de lo público y nos parece que no ofrece otra alternativa. Serán públicos: aquellos cuyo titular sea una Administración Pública. Las ikastolas creemos que hay una gran oportunidad para romper esa dicotomía, ser valientes y empezar a experimentar con otros modelos a nivel mundial y europeo.
- También nos parece un avance **el principio y el objetivo de gratuidad para garantizar el derecho a la educación a todos los alumnos y familias.** Pero no se menciona cómo se llevará a cabo, cuáles serán los medios que pondrá la Administración para asegurarlo. El único punto que se menciona son las auditorías, y aunque las ikastolas podemos estar de acuerdo en este punto, todos sabemos, y la administración también, que para ofrecer gratuitamente ese servicio público que realmente se propone, hay que poner muchos más medios. Con este objetivo, la propia LOMLOE también alude a la necesidad de constituir un plazo y grupo de trabajo a nivel español. Creemos que la Ley de Educación debería hacer la misma mención y que no se puede garantizar esa

gratuidad hasta que se destinen todos esos recursos. Mientras tanto, hay medidas provisionales (o las puede haber).

- El borrador de Ley también habla **de planificación estratégica**: la falta de mayor concreción en el texto del borrador de ley hace difícil saber de qué habla cuando regula la planificación estratégica, ya que en el borrador también aparece otra figura, muy similar, llamada programación general de la educación. Es más, es imposible saber cuál es la conexión entre ambos y nos referimos a dos elementos que tienen un peso específico importante en el texto del borrador de la ley.
- Compartimos la **propuesta inicial y el objetivo que se mencionan en torno a la segregación**, ya que vemos la planificación y la implicación de los ayuntamientos como la herramienta más eficaz para poder encauzar el objetivo marcado. Sin embargo, también en este caso la falta de concreción es muy grande, y en la medida en que el uso de estas herramientas puede ser muy diferente (con conclusiones muy diferentes), sin esa precisión sólo podemos mostrar preocupación.
- **Participación municipal**: el texto del Pacto Educativo nos hacía pensar que sería importante la participación de los ayuntamientos en el sistema educativo vasco, pero en el borrador de la ley se ha difuminado el papel de los Ayuntamientos. Por ejemplo, los Consejos Municipales de Educación son opcionales. Por un lado, si un Municipio no quiere crear ese consejo, no está obligado; y por otro, las funciones que le asigna el borrador de la ley son muy generales. Y en otros casos se establecerán reglamentariamente las competencias municipales. Si queremos avanzar hacia un nuevo modelo de lo público, la participación activa de los ayuntamientos y demás agentes de los municipios será imprescindible, a juicio de las Ikastolas.
- **Relacionado con la autonomía** (de todos los centros) también nos parece interesante la referencia al contrato-programa, ya que puede ser una herramienta importante si, de verdad, se quieren implantar la innovación y la enseñanza avanzada vinculada a los centros. La autonomía de los centros se manifiesta una y otra vez, así como la participación de todos los estamentos. Pero dicha autonomía no podrá ejercerse en los centros de los que sea titular la Administración, si no se ejercen la autonomía de los recursos humanos y económicos.
- **Modelo de Gobernanza**: desde la legislación anterior nada ha cambiado en el apartado de modelo de gobernanza de los centros concertados, ni en la composición del Consejo Escolar. Consideramos que no se tiene en cuenta el modelo de gestión que tenemos las ikastolas y las cooperativas. Es decir, si el titular del centro está formado por familias y, en muchos casos, por personal, no tiene mucho sentido desarrollar el Consejo Escolar, ya que sus funciones las ejerce el Consejo Rector.

- **Euskal Herria en su conjunto.** De nuevo, debemos mencionar un gran vacío que tiene el borrador de la ley desde nuestra perspectiva: la omisión de Euskal Herria. Euskal Herria no es solo el pueblo del euskera; hay mucho más; tiene que ver, también, con el carácter, la cultura, la lengua, el valor y la identidad. Todo ello, si bien es evidente que se trata de una ley que se elabora para Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, tiene que tener su eco en la ley y, al igual que desde el punto de vista de la territorialidad, consideramos que debe abordarse también desde el punto de vista sociolingüístico, cultural y económico. Y creemos que hay vías para ello. Por un lado, fomentando las relaciones y proyectos entre todos los centros existentes en el País Vasco o el despliegue de redes entre los mismos; y, por otro, utilizando la legislación existente a nivel europeo, creando y utilizando instituciones de fomento de la colaboración que, partiendo de la realidad actual, pueda servir de herramienta para la construcción de un sistema educativo propio en toda Euskal Herria y de encauzamiento de proyectos estratégicos para todos.
- **Laicismo:** la ley establece que los centros financiados con fondos públicos deberán desarrollar un modelo educativo basado en la laicidad. Pero también en esta base se señala que deberá respetarse el carácter propio de los centros concertados privados. Creemos que esta ley debería garantizar la libertad de creencias, excluyendo a las religiones, como fe, del currículo.

Esta es la primera valoración del borrador de ley. Disponemos de un plazo de un mes para realizar aportaciones y abrir el debate y trabajar las aportaciones en nuestra comunidad.